



HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BERMATZEKO

LEGE-PROPOSAMENA

2018ko irailean



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

BEHINGOZ!

3

A. ATARIKOA

4

1. Zergatik lege berria?
2. Kronologia

B. HERRITARRAK ERDIGUNEAN

8

1. EUSKARA OFIZIALA NAFARROA OSOAN dinamika
2. EUSKARARI BIDEA ELKARREKIN dinamika
3. HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

C. EUSKARAREN LEGE BERRIA

14

1. LEGE BERRIAREN OINARRIAK ETA TRESNA NAGUSIAK
2. ARDATZAK
 - a. Atarikoak
 - b. Printzipio nagusiak
 - c. Instituzioak eta administrazio publikoak
 - d. Irakaskuntza
 - e. Eremu sozioekonomikoa
 - f. Onomastika
 - g. Hedabide sozialak eta teknologia berriak
 - h. Kultura
 - i. Botere publikoak sustatzaile

BEHINGOZ!

Hitz hori errepikatzen ari gara behin eta berriro azken asteotan, euskarari Nafarroa osoan ofizialtasuna behingoz aitortu behar zaiolako. Urte asko izan dira legeak euskaldunok bizi diren tokiaren arabera bereizi dituenetik. Urte gehiegi zentzurik gabeko bidegabekeriari ekin zitzaionetik. Denbora luzeegi milaka herritar eskubidez gabeturik.

Aldaketaren aldeko haizea ufatu genuen, leporaino beteta zegoen Anaitasuna kiroldegian 2015eko apirilean. Aldaketa posible egingo genuela esan, eta horri lagunduko geniola. Finean, hizki larriz idatzitako ALDAKETAk euskaratik ere etorri behar zuela aldarrikatzen genuen.

Aukera berria zabaldu da orain euskaratik behingoz horrenbeste espero genuen aldaketa erdiesteko. Nafar guztien arteko eskubide-berdintasuna bermatuko duen lege bat onartzeko aukera zabaldu da, eta Kontseiluak horren gaineko proposamena egin nahi izan du.

Izan ere, gogoan izan dezagun, lege guztiek herritarrengan dutela eragin zuzena, bai eta Euskararen Legeak ere. Horrexegatik, Kontseiluak prestatutako Euskararen Lege Berrian, herritarrak ekarri nahi izan ditugu erdigunera. Nafarroa osoko herritarren bizipenak, kezkak eta proposamenak oinarri jorratu dugu proposamena. Aldaketa aldarrikatu zuten herritar askorena, hain zuzen ere.

Aukera duzue, aukera dugu, aukera dago behingoz euskara Nafarroa osoan hizkuntza ofiziala izendatzeko. Egin dezagun!

A. ATARIKOA

Nafarroako **berezko hizkuntza** da euskara, eta horrela jasotzen du Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak. Nafarroaren ondare izendatzen du euskara, eta altxor hori begiratu eta babesteko, eta haren hondatzea eta galera eragozteko beharkizuna ezartzen du. Gainera, hizkuntzen arteko borroka edo aurkaritza baztertzeko aldarrikapen solemnea egiten du, eta aitortzen die herritar guztiei euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea.

Baina euskararen eta euskaldunon hizkuntza komunitatea ez daude hitz eta asmo on horiek igurikatzen zioten bezain egoera onean. Legea idatzi zen garaian, eraso eta galgatze politikoez eragindako asimilazio eta ordezkapen prozesu luze bat pairatuz zetozen euskara eta bere hiztunak. Horregatik, nafar euskaldunon esperantza zen Foru Lege baten bidez konponbidean jartzea gabezia horiek guztiak, baina Euskarari buruzko **18/1986 Foru Legea bera izan da arazo eragile**, hasmentatik bertatik. Ondorioz, euskaldunok pairatu behar izan dugu gure hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa, urtetan, eta euskaraz bizitzeko proiektuetan buru-belarri aritzeaz gain, euskararen garapenaren aurkako politikari aurre egin beharrean izan gara, gehiegitan.

Euskara hizkuntza gutxitua da Nafarroan, hizkuntza-gatazka egoeran egonik, baldintza soziolinguistiko, juridiko eta politiko makurragoak dituelako alboko hizkuntza hegemonikoaren aldean. Edonola, 18/1986 Foru Legea onartu zenetik gaur arte, hobetu egin dira gure hizkuntzaren baldintza sozialak, hobekuntza nahi eta behar baino motelago gertatzen ari den arren. Zailtasunak zailtasun, **herritarron nahiak eta lanak ekarri gaituzte gauden tokira**, ikastoletako eta eskoletako euskara eskaintza indartuz, helduen euskalduntzeari eutsiz, euskarazko kultur sorkuntza eginez eta gozatuz, euskarazko hedabideak zabalduz, hizkuntzaren transmisioari kate-begiak gehituz,... **Horri guztiari esker, euskaraz bizitzeko ilusioa eta helburu hori lortzeko gogoia bizi-bizi daude gizartean, oraindik ere.** Hain zuzen, euskaraz bizitzeko herri gogo hori ere izan zen 2015ean gertatutako aldaketa politikoaren eragileetako bat.

1. ZERGATIK LEGE BERRIA?

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak hiru hizkuntza-eremu ezarri zituen, bakarrean aitortuz euskararen ofizialtasuna. Ondorioz, Euskararen Legeak bermatu baino **mugatu egiten dizkie eskubideak herritarrei**, euskaraz bizitzeko eskubidea tokiaren arabera baizik ez baitie aitortzen. Hizkuntzagatik inor ez diskriminatzea eskatzen duen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipioaren aurkakoa da muga hori. Horrela, **bazterkeria legez jasota** duen komunitatea da Nafarroa.

18/1986 Foru Legeak aitortzen die herritarrei, administrazioekiko harremanetan, Nafarroako berezko hizkuntza den euskara erabiltzeko eskubidea. Edonola, eskualdekatze bidegabe horren ondorioz, soilik eremu "euskaldunean" dute herritarrek euskaraz artatuak izateko eskubidea aitortuta. Horregatik, Euskararen Legea desegokia da, **ez du balio herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko**, lurralde bereko toki batean aitortu eta beste batean ukatu egiten baitizkio herritarri, arbitrarioki.

18/1986 Foru Legeak **babesgabe uzten ditu herritar euskaldunak**, administrazioari ez baitio ezarrazten herritarren eskubide subjektiboa den hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea. Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren arabera, herritarren hizkuntza-eskubideak urratzen dituzten erakundeek beren jarduera baztertzailerak zuzitzen dute, 18/1986 Foru Legea betetzen dutela ziurtatuz. Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak ere adierazi du 18/1986 Foru legearen eskualdekatzeak onurarik ez eta arazoak besterik ez dizkiela ekartzen herritarrei, eskubideak galtzen dituztelako lurraldean zehar mugitu ahala.

Hizkuntza-eskubideak eskubide indibidualak eta neurri berean kolektiboak dira, baina 18/1986 Foru Legeak **gizarte kohesioaren aurka** egiten du, ukatzen baitie herritarrei berezkoa den hizkuntzaren jabe egin eta euskaraz bizitzeko aukera betea izatea. Eskubideen araberrako banaketa eragiten du herritarren artean, eta hesi juridiko, politiko, sinboliko, psikologiko eta administratiboa ezartzen du; gutxiagotasun-konplexua zabaltzen du euskaldunon artean eta gotortu egiten ditu euskararen garapenaren aurkako jarrerak, euskara

arrotz mantenduz, eta euskararen aldeko politikari buruzko herritarren pertzepzioa okertuz. Nafarren arteko kohesioa ukatuz, euskal hiztunen eta, oro har, herritarren duintasunari muzin egin zaio. Horren guztiaren ondorioz, tentsioak eragiten ditu gizartean, jarrera ez solidarioak sustatuz, herritarren hizkuntza-hautuaren errespetuari muzin eginez eta pertsonei bizimodua zailduz.


Legean oinarri harturik, gainera, **euskararen eta euskal hiztunon aurkako hizkuntza-politika** publikoak garatu dira, urteotan. Horren adibide dira Legea bera baino murriztaileagoa izan zen administrazioan euskararen erabilera arautzeko 2003ko dekretua, edo toponimia arautzen zuena, euskarazko izendegia gutxietsi edo zuzenean ukatzen zuena. Era berean, gogoratu behar dira ekimen sozialeko hezkuntza euskaldunak (ikastolak) pairatutako oztopoak, euskarazko hedabideei urtetan eragindako zailtasunak, legeztatzea ukatuz, edota helduen euskalduntzea egituratzeko eta laguntzeko diru-baliabideak murriztu eta baita ukatu izana ere.

Gainera, **ez da lege eraginkorra**, bere murriztasunak ez baitu euskararen erabileraren normalizazioa ezta euskararen garapena ere ahalbidetzen. Eskualdekatzeak eta euskarak ofizialtasunik ez izateak **euskararen garapen azkarragoaren aurka** egin dute, nabarmen. Azken ikerketen arabera, euskaraz eskolaratzeko aukera eskura izan den tokietan euskalduntze-prozesuaren hazkundea handiagoa izan da. Alde horretatik ere, azpimarratu behar da **ez dela lege dinamikoa**, ez baita gizartearen euskalduntzearekin eta gizartean gertatu diren gainerako aldaketa ugariekin (lan-esparruaren garapena, gizartearen hiritartzea, iraultza digitala, migrazio-fenomenoak,...) batera eguneratu.

Euskararen mesederako garatu diren hizkuntza politika gehienak ere **desorekatuak** izan dira, izaeraz eta ezarpenez, halabeharrez. Horren adibide da administrazioan euskararen erabilera arautzeko 103/2017 dekretua, zeina motz geratu den herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko aldera, ezin baitu euskarazko arreta behartu lurralde osoan. Kontratu Publikoetako 2/2018 Foru Legean ere, hizkuntza-kudeaketaren irizpideak barneratu badira ere, zerbitzuen onuradunen hizkuntza-eskubideak bermatzetik oso urrun geratu da edukia.

2. KRONOLOGIA

AURREKARIAK



AURREKARIAK

Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Itunean hartutako konpromisoak direla eta, Ministroen Kontseiluak gomendioa egiten du eremu mistoari Itunaren III. atala ere aplikatzeko. Nafarroako Gobernuak are politika murriztagoak garatu zituen euskaldunon aurka: euskara instituzioetatik desagerraraziz, euskararentzako diruak kenduz...

2005
2008
2012
2016

Hezkuntzan euskarazko ereduaren igoera galgatzeko hizkuntza-eredu berriak jarri zituen abian Nafarroako Gobernuak

18/1986 Legearen aldaketa, Aranguren, Belaskoain, Galar eta Noain eremu mistoan sartzeko.

2010

Maiatzean, Iruñeko karrketan, euskararen alde inoiz egin den manifestazio handienean milaka lagunek aldarrikatu zuten euskaraz bizitzeko eskubidea, Kontseiluak deituta.

"Nafarroan euskara normalizatzeko Foru Lege proposamena" aurkeztu zuen NaBaik. 18/1986 Legeari erabateko aldaketa egitea proposatzen zuen, hizkuntza-eskubideetan oinarri hartuz. NEBk eta NaBaik bozkatu zuten alde.

2011

Urtarrilean, 18/1986 Legea aldatu zen, eta eremu ez-euskaldunean D ereduari ikasteko aukerari atea zabaldu zitzaion, sare publikoan.

2015

Apirilean, 'Euskaraz bizi nahi dut' aldarri ozena egin zuten milaka lagunek, Anaitasuna kiroldegian, Kontseiluak antolatutako ekitaldian.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOA aurkeztu zen Donostian, Kontseiluaren gidaritzapean. Europako 30 hizkuntza komunitatetako 100etik gora eragileren proposamenean osatu zuten Protokoloa, hizkuntza gutxituen esparruan Europan inoiz garatu den prozesu parte hartzaileena izanik.

2016

Ekainean, 18/1986 Legea aldatu zen, nabarmen handituz eremu mistoa osatzen duten herrien zerrenda, eta baita udal bat gehituz eremu euskalduneko zerrendara, Legeari Euskararen Legea izendapen bakarra eman. Euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoa hedatzea aldarrikatu zuten udal ugari, batzarretan onartutako mozioen bidez. Hori lortu bitartean, eremu mistoan sartzeko eskaria egiten zioten Parlamentuari.

2017

Udazkenean hasita, Nafarroako eremu mistoko hainbat herritan dinamika bat abiatu zuen Kontseiluak, herritarren bizipenak oinarri hartuta, udalei eta Nafarroako erakunde nagusiei eskatzeko euskara ofizial izendatzea herri horietan eta Nafarroa osoan. 2.600 herritar baino gehiagoren eskabideak eraman ziren Parlamentura.

Martxoan, abian jarri zen batzorde berezi bat Parlamentuan, sei hilabeteko epean euskarari buruzko Foru Lege berri baterako proposamena prestatzeko helburuz. Lege horren printzipio inspiratzaileak izango dira: Nafarroako herritarren hizkuntza eskubideak betetzea, zonifikazio linguistikoa gaituzte eta euskara Nafarroa osoan ofizial bihurtzea, lurraldeko errealitate soziolinguistikoa desberdinetatik abiatuz eta haiei egokituz.

2018

Udaberrian, lan-saioak antolatu zituen Kontseiluak Iruñean, Tuteran, Lizarran, Barañainen eta Elizondon, herritarren ekarpenak jasotzeko, Parlamentua lantzen hasia zen Euskararen Lege berriari ekarpena egin asmoz.

B.

HERRITARRAK ERDIGUNEAN

Egia da, bai, egungo sisteman botere legegileari dagokiola legeak idaztea eta onartzea. Halere, egia ere bada, onartzen diren legeen ondorioak herritarrek pairatzen dituztela. Horrexegatik, hala edo nola, lege bat onartu behar denean horrek herritarrei zer-nolako ondorioak eragingo dizkien aztertu behar da.

Aurreko atalean azaldu dugu, eta Nafarroan hamarnaka eragilek hamaika aldiz adierazi dute, euskarari lotutako egungo ordenamendu juridikoa ez dela batere demokratikoa, izan ere, herritarrei hizkuntza-eskubideak bizi diren tokiaren arabera aitortzen dizkielako. Horrela, eskubideen aitortzaren eskualdetzea sortzen du Euskararen Legeak. Eta, salbuespenezko legea dela esan genezake, ez baitago Nafarroan bizi diren herriaren arabera eskubide desberdinak aitortzen dituen bestelako legerik.

Horrela, Euskararen Lege Berri bat prestatu behar bada, oso garrantzitsua da egungo marko juridikoarekin herritarrak zer-nola bizi diren, eguneroko bizitzan nola eragiten dien eta zein oztopo sortzen dien ezagutzea, ahal dela, beraiek berek azalduta.

Herritarren ekarpenei begira, Kontseiluak azken urtean bi jardun nagusi jarri zituen abian, batetik, legeak ezarritako eremu mistoko zenbait herritan abiatutako dinamika herritarrei euskaraz bizitzeko dituzten oztopoak agerrarazteko; eta bestetik, Nafarroako hainbat herritan antolatutako tailerrak lege berri batek jaso beharko lituzkeen ezaugarrien proposamenak egiteko.

Jarraian bi dinamika horietan jasotako elementu garrantzitsuak azaldu nahiko genuke:

1. EUSKARA OFIZIALA NAFARROA OSOAN dinamika

2017ko urriaren 11n Kontseiluak *Euskara Ofiziala Nafarroa Osoan* dinamika abiarazi zuen legeak ezarritako eremu mistoko hainbat herritan, hain zuzen ere, Antsoainen, Berriozarren, Burlatan, Mutiloan, Sarrigurenen, Lizarran eta Iruñean.

Herritarrek euskaraz bizitzeko egunero dituzten oztopoak azaltzeko eskatzen zitzairen, eta bide batez oztopo horiek gainditzeko euskarari estatus ofiziala esleitzeko aldarrika zezatela.

Bi mila sei ehun baino eskaera gehiago jaso eta horiek guztiak Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren esku utzi genituen.

Halere, esan behar dugu, Kontseiluaren lege proposamena prestatzeko oso baliagarriak izan zaizkigula herritarrek eskaera haietan agertu zituzten euskaraz bizitzeko oztopoak. Finean, eskubideen urraketei amaiera eman behar dion lege bat prestatuko bada, egun beltzune edo arazo nagusiak non dauden identifikatzen laguntzen zuten herritarren eskabideok.

Ehunka oztopo jaso genituen eta ezinezkoa da horiek guztiak dokumentu honetara ekartzea, baina nolabaiteko multzokatzea egitekotan, honako hauek lirateke askotan errepikatutako oztopoak:

- Osasun-zerbitzua euskaraz ezin jasotzea (bereziki aipatua)
- Udalarekiko harremanetan euskara ezin erabiltzea
- Kultura-eskaintza euskaraz ez egotea
- Aisialdiarekin lotutako jarduerak euskaraz ez egotea

- Derrigorrezkoa ez den hezkuntzan euskarazko eskaintzarik ez egotea: musika, artea...
- Hainbat zerbitzutan euskarazko arretarik ez jasotzea: gizarte-zerbitzuak, liburutegiak
- Haur eskolan euskarazko eskaintzarik ez egotea
- Etab.

2. EUSKARARI BIDEA, ELKARREKIN dinamika

Nafarroan Euskararen Lege berria egiteko ekimena aurkeztu zuen Kontseiluak Iruñean. *Euskarari bidea, elkarrekin* leloarekin garatu du dinamika. Horrela, Kontseiluaren proposamenaren edukia lantzeko, proposamena egin zitzairen herritarrei eta horien ekarpenak jaso genituen hainbat mintegitan

Kontseiluentzat funtsezkoa da herritarrak ahalduntzea, gure eskubideen eta ahalmenaren kontzientzia hartuz eta konplexuak uxatuz, Lege berriak denon behar eta interesei zuzenean erantzun diezaien. Gainera, herritarron inplikazioak Lege berriari zilegitasunaren bermea ematen diola uste dugu.

Horrela, udaberrian, lan-bilerak antolatu zituen Kontseiluak, eskualdekatze linguistikoak



ezarritako hiru eremuetako lau herritan (Barañain, Elizondo, Lizarra eta Tutera).

Halaber, aipatu behar da oinarrizko dokumentu gisa Europako hogeita hamar hizkuntza gutxituren normalizazioaren alde jarduten duten ehunetik gora eragilek adostutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa baliatu zela proposamena egiteko oinarri gisa eta horren gainean landu zirela herritarren eta euskalgintzako eragileen ekarpenak.

Aipatu tailerrak bi zatian banatu ziren. Lehenik eta behin egungo egoeraren erradiografia osatzeko ekarpenak egin zituzten parte hartzaileek. Bigarrenik, aurrera begira jarri genituen herritarrek proposamenak egin zituzten.



ERRADIOGRAFIA

ADMINISTRAZIOA

- Nafarrok **eskubide** ezberdinak ditugu kokalekuaren arabera.
 - Ezin da **tramiterik** egin euskaraz.
 - Ezin dugu administrazioarekin euskaraz **mintzatu** (udala, ospitalea...).
 - Informazio publikoa aldatu / eten egiten da, eremu linguistikotik ateratzean (Renfe, Iruñetik aterata, Tafallan gaztelaniaz hasten da).
- Administrazioaren edozein zerbitzutan, mirariz topatzen da **langile** euskaldunik: erregistroan, turismo-bulegoan, ogasunean, gizarte zentroetan...
 - Mediku erdaldunak, baita ordezkoak ere, Baztanen eta Iruñean. Euskaldunak badaude, baina ez dute Baztanera etorri nahi, urrun omen dagoelako.
 - Adinekoen etxean, profesional ez euskaldunak daude (medikuak, laguntzaileak, erizainak).
 - Gizarte-segurantzako eta lanbideko bulegoetan desastrea da euskararen egoera.
 - Institutuko langileak (garbitzaileak) ez dira euskaldunak.
 - Liburutegiko langileak ez da aski moldatzen euskaraz.
- Euskararen pisua **lan-deialdi** publikoetan oso eskasa da.
- Estatuko administrazioaren baitako **tramiteak** (NA edo gidabaimena berritzea) ezin euskaraz egin.
- **Arreta** ez da euskaraz izaten.
- Herritarrei begirako **karteldegi orokorrean** ez da euskararen presentziarik izaten.
- **Inprimakiak** ez daude euskaraz.
- Herritarrekiko **harreman idatziak** gaztelaniaz izaten dira (gutunak...).
- Zerbitzuak gaztelaniaz izaten dira: kirol jarduerak...
- Administrazioaren egoitzetako **hizkuntza-paisaia** ez da euskaraz izaten (Osasun etxea).

AURRERA BEGIRA

ADMINISTRAZIOA

- Administrazioan euskararen erabileraren **normalizazioa eragiteko plangintza estrategikoa**.
- **Hizkuntza-eskakizunak** ezartzea lanpostu publikoei.
- Langile publikoei **sarrerako azterketak** euskaraz eginaraztea.
- Euskara **ikasteko** aukera ematea eta laguntzak eman langile publikoei.
- **Trebakuntza jarraitua** euskaraz izatea.
- **Sentsibilizazio-ekintzak** langileekin (jarrerak, betebeharrak...).
- **Harrera**-postuetan (telefonoa...) langile euskaldunak jarri.
- **Euskarazko zirkuituak** eratu (tarteko neurri gisa).
- Herritarrekiko **komunikazio idatzietan**,
 - Euskarri orotan ziurtatzea euskararen presentzia.
 - Euskara hutsez edo elebitan jasotzeko aukera bermatzea. Errolda.
- Zerbitzuen **kontratazioetan hizkuntza-irizpideak** ezartzea.
- Euskararen **normalizazioa eragiteko neurriak**:
 - Helduak euskalduntzeko doakotasuna
 - Diru-laguntzak ematea (euskal kultur elkarteentzako laguntzak...),
 - Sentsibilizazio ekintzak eta programak:
 - > hizkuntza-eskubideen berri eman herritarrei.
 - > euskarari balioa eman herritarren begietara.
 - Udalekuak euskaraz.
- Edozein motako diru-**laguntzetan hizkuntza-baldintzak** ezartzea: errotulazioa, jarduera euskaraz bada puntu gehiago...
- Lehentasunezko eremuak identifikatzea, bereziki, osasungintza

ERRADIOGRAFIA

- Administrazioak hirugarrenen bidez ematen dituen **zerbitzuen kontratuetan** hizkuntza-irizpideak ez dira betetzen.
- Euskarari bigarren mailako trataera ematen zaio (**jarrera** ezkorra).
- Hainbat politikari agertu izan da euskararen presentziaren aurka.
- Zeharkakotasuna falta da, euskara lantzen da euskara bera denean helburu edo gai.

ONOMASTIKA

- Nafarroako Gobernuak emandako **irizpideak** ez dira betetzen ari.
- Izendegi ofiziala **onartua ez** izatea udaletan.
- Ez da erabiltzen euskarazko izendapena. Posta bidalketetan, euskarazko helbidea badu, ez da iristen.
- Tokien izenak **ordezkatzea**, turismo irizpideen arabera (Santiago bidearen eraginez).
- Alferrikako izendatze **bikoitzak** (Zugarramurdi / Zugarramurdi ; Olabe/Olave).
- **Akatsak** izendapenetan.
- Teknikarien **jarrera** (utzikeria).

HEDABIDEAK

- Ez dago nahikoa **tokiko** hedabide euskaldunik.
- **Kazetari** euskaldunak falta dira.
- Euskarazko argitalpen **txikiak** zailtasunak dituzte diru-laguntzetara iristeko.
- **EiTBren** euskarazko ekoizpenak ez dira iristen Nafarroa osora, eta iristen denetan, sarri eskas.
- Hedabide nagusiak **erdaldunak** dira.
 - Euskararen presentzia hutsala da hedabide nagusietan.
 - Erdal prentsak ez ditu euskaraz **bisibilizatzen** euskaldun erreferentziak.
- Interneteko **sorkuntza** gaztelaniaz da.
- Gaztelaniazkoetara jotzeko jendearen **ohitura**.

HEZKUNTZA

- **Marko juridiko** egokirik ez.
- Euskarazko **eskaintzaren** falta.
 - Herri eskolak D eredurik gabe (minimoa).
 - Iraunkortasun falta (eskariaren arabera).
 - Ratioen erruz, ez dira euskarazko taldeak sortzen.
- Ereduen **nahasketa** publikoan/esparruak.
- Euskararen presentziarik ez izatea ikastetxe askotan (**G eredua**).
- Orain badago euskara LHko ikastetxeetan, baina ez du **segidarik**. LH bukatzean ihesa (bereziki, DBE ez dagoen tokietan).
 - Institutuan, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean euskarazko eskaintza falta.
- B ereduko ikastetxeetan, sarri, etorkinak. Gettho bihurtzeko arriskua.
- Errekonozimendu falta.
- Euskararekiko **jarrera** makurra herritarren artean.

AURRERA BEGIRA

ONOMASTIKA

- Toponimia **ofizialtzea**, arautzea eta betearaztea.
- Erdaldunduta edo euskaraz gaizki dauden bide-panelak eta kalekoak **zuzendu**.
- Abizenak **euskaratzeko** kanpaina egin, eta erraztasunak eman.
- Izendegiaren inguruko **ikerketa eta dibulgazio** lanak egin.

HEDABIDEAK

- Euskarazko komunikabide potenteak eta kalitatezkoak **sortu**: Irrati eta telebista publikoa.
- Gutxieneko **kuota** ezarri euskararen presentziari hedabideen edukietan.
- Administrazioaren publizitatean eta diru-laguntzetan **hizkuntza-irizpideak** ezarri (kuota).
- Publizitatea euskaraz egiteko **diru-laguntzak** ematea.
- **Hitzarmenak** egin eskualde osoko osatuetan euskarazko hedabideak hedatzeko.

HEZKUNTZA

- D eredua eskaintzea herri guztietan.
- Haur nafar **guztiak** euskara ikastea.
 - PAI kendu, doike!
 - Eredua gainditu, tokian tokiko beharretara egokituz.
- **Laguntza** taldeak haurrentzat (euskaldun gisa tratatu).
- Plantilla **iraunkorra** / elebiak
- **Hizkuntza-eskakizunak** irakaslegaei.
- Nafarroako ikastetxe guztietan euskararen **presentzia** bermatzea.
- Irakasleen-**euskara maila** bermatu.
- Langileen **erabilera** programak/hizkuntza-irizpideak.
- **Paisaia** linguistikoa euskaraz.
- **Heziketa informala** (aisialdia) euskaraz.
- Zerbitzuen **kontratazioan** hizkuntza-irizpideak ezarri.
- **Diru-laguntza** gehiago.
- Estrategia eta **diskurtso** egoki bateratu bat, eta bakarra.
- Ikasle guztiak **gaitasun komunikatibo egokiak** eskuratzea derrigorrezko hezkuntza amaitzean.

ERRADIOGRAFIA

- Oposizioetan bi zerrenda izatea.
- **Jarduera osagarriak** eta klasetik kanpoko langileak (garbitzaileak, jangelakoak, autobus-garraioan, gidari eta zaintzaileak) sarri erdaldunak dira.
- Euskarazko **material** didaktiko gutxi.
- Berrikuntzen "prekarietatea".
- Beste hizkuntzei ematen zaien garrantzia.
- **Helduen euskalduntzeak** diru-laguntzak falta ditu.

SOZIOEKONOMIA

- Zerbitzu- eta lan-munduak **erdaldundu** egiten dute.
 - Euskararen presentziarik ez, ezin da euskara erabili.
 - Saltegietan ez jakitea euskaraz.
 - Paisaia linguistikoa gaztelaniaz da.
 - Publizitatea gaztelaniaz da.
 - Produktuen etiketajea erdaraz da.
- **Prestigio** falta. Enpresek ez dute kalitatezko zerbitzu baten parte ikusten euskarazko zerbitzu integrala eskaintzea: Bankuek erdaraz egiten dute, sano. Arkitektoen edo notarioen txostenak gaztelaniaz dira.
- Administrazioako laguntzen **tramitatzea** erdaraz egiten da (Nekazaritza Politika Bateratukoak...).
- Arlo sozioekonomikoko laguntzetan ez dago **hizkuntza-baldintzarik**.
- Euskara planak garatzeko **aurrekontu** eskasa.
- Langile euskaldunen **ikusgarritasun** falta.
 - Gune euskaldunak ez ezagutzea.
 - Kontsumitzaileak ez du euskarazko zerbitzua baloratzen.
- Merkataritzan/lan munduan egonkortasunik ez izatea.

KULTURA

- Herritarrek euskara **arrotz** sentitzea.
- Euskara eta kultura nahasten dira.
- **Eskaintza** gutxi edo ezer ez:
 - Ekitaldi publikoetan euskararen falta.
 - Liburutegiko euskarazko eskaintza eskasa da.
- Euskarazko eskaintzaren inguruko informazio falta (**ikusgarritasuna**).
- **Kontsumo** gutxi.
- Geure buruarekiko ziurtasun falta.
- Euskarazko kultur ekitaldietan, jendartean gaztelaniaz hitz egitea.

AURRERA BEGIRA

SOZIOEKONOMIA

- Kontsumitzaileei hizkuntza-**eskubideak aitortzea**.
- Administrazioa tarteko den prozesu guztietan **hizkuntza-baldintzak** eta normalizaziorako **neurriak** sartzea.
- **Harrera** euskaraz jasotzea.
- Irizpide **positiboak** ezartzea (bankuek...) eremu euskaldunari begira.
- Curriculumean euskara **balio** erantsi bat izatea.
- **Normalizazio-planak** egin:
 - Diagnostikoak egin: beharrak identifikatu...
 - Errotulazioa euskaratu
 - Klausula sozialak ezartzea.
 - Langileak euskalduntzeko planak.
 - Diru-laguntzak eskaini.
 - Euskara prestigiatzea.
- Hirukoiztea euskara planetarako **diru-saila**.
- Euskal Kontsumitzaileen Elkarteak sortzea.
- Hizkuntza-maila eskaeren zehaztapena.
- Zerbitzu orokorrak ematen dituzten enpresei betebeharrak zehatzak ezartzea.

KULTURA

- Eskaintza publikoan, euskarazko produktuen **kuota** ezartzea.
- Ekitaldi publikoetan euskara ere **erabiltzea** (agurrerako eta laburpena egiteko bada ere).
- **Diruz lagundu**:
 - Euskarazko sorkuntza.
 - Euskaraz azpidatziak.
- Euskal diasporarekin kontaktua bultzatu.

Ikusten denez, tailerretan elementu asko izan ziren hizpide eta horietako hainbat ez zaio zuzenean lotzen lege-markoari, legearen garapenari baizik. Halere, Kontseiluak egindako proposamenean bertan jasotako elementu garrantzitsuenak jasotzen saiatu gara.

3. HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

Amaitzeko, ez genuke ahaztu nahi, egun badela Kontseiluak abian jarritako eta nafarren hizkuntza-eskubideak babesteko erakunde bat: Hizkuntz Eskubideen Behatokia.

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak herritarrei begirako zerbitzu bat du, Euskararen Telefonoa, zeinaren bidez herritarrek hizkuntza-eskubideen urraketen berri eman baitezakete. Ondoren, Behatokiak eskubidea urratu duen erakundearekin harremanetan jarri eta urraketa konpontze-bidean jartzeko eskatzen dio.

2001ean aurkeztu zen Hizkuntz Eskubideen Behatokia Iruñean eta orduz geroztik, milaka kexa jaso izan ditu. Euskal Herri osoan lan egiten du Behatokiak eta kexen %30 Nafarroako herritarrek helarazitako izan dira.

Denetariakoak izan dira helarazitako kexen/urraketen zioak: ahozko zein idatzizko zerbitzuari lotutakoak, errotulazioarekin edota seinalizazioarekin zerikusia dutenak, jakinarazpen pertsonalizatuak, osasun asistentziari lotuak...

Behatokiak urraketa egoera horiek gainditzeko edo zuzentzeko lana eta prozedura abiatu duenean behin eta berriro egin du topo Euskararen Legearekin. Askotan adierazi zaio botere publikoetatik bertatik ez dela legea urratzen: "Eremu mistoko biztanleei zuzendutako posta elektronikoak edo baliokideak diren komunikazioak itzuli gabe bidali daitezke. Ez da, beraz, legea urratu" (231-2012 dosierra. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua); "Ez daude ´eremu vascofonoan´, beraz ez da derrigorrezkoa euskarazko testua txertatzea" (76-2012 dosierra. Herri Lan Zuzendaritza Nagusia)

Etsipen-puntua ere sortu du behin eta berriz Legearen hormarekin topo egiteak. Horiek horrela, Hizkuntza Eskubideen Behatokiak egiaztatu ahal izan du Legea bera dela oztopo herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, askotan instituzioek beraiek jartzen dutelako legea argudio gisa eskubideak urratzeko.

C. EUSKARAREN LEGE BERRIA

Nafarroako Parlamentuak onartu zuen, 2017ko urriaren 27an, batzorde berezi bat eratzea, sei hilabeteko epean Euskarari buruzko Foru Lege berri baterako proposamena prestatzeko. Lege berriaren printzipio inspiratzaile edo oinarritzkoak honela zehaztu zituen: Nafarroako herritarren hizkuntza-eskubideak betetzea, zonifikazio linguistikoa gainditzea eta euskara Nafarroa osoan ofizial bihurtzea, lurraldeko errealitate soziolinguistiko desberdinetatik abiatuz eta haiei egokituz.

Euskaldunontzat ona izango den Foru Lege berri bat behar da, egiazki eta efektiboki berma daitezen euskaldunon hizkuntza-eskubideak, behingoz; euskararen erabilera normalizatzeko gizarte bizitzan; eta euskararen garapena eta etorkizuna ahalbidetzeko eta laguntzeko.

Gizartearen ongizatean, elkarbizitzan eta bakean sakontzeko ekarpena izan behar du Foru Lege berriak, eta baita hizkuntza-aniztasunaren eta pertsonen eskubideen defentsaren aldarri ere. Kontuan izan behar da bakea pertsonen eta giza taldeen bizi baldintza duinak ezartzearen ondorioa dela. Hartara, hizkuntza-komunitateen duintasunaren errespetuak ahalbidetuko du bake soziala.

Nafarroako gizarteari dagokio, bai eta alderdi politikoei ere, oinarri berri sendoak jartzea, lege berriak erantzun diezaien herritarron beharrei, eta etorkizun hobe bat izan dezagun Nafarroako berezko hizkuntza den euskarak eta euskaldunok, eskubide berdintasunean, injustiziak zuzenduz, herritarron ongizatea zainduz eta gizarte kohesioa erraztuz.

1. LEGE BERRIAREN OINARRIAK ETA TRESNA NAGUSIAK

a) **Berezkotasuna.** Euskara Nafarroako berezko hizkuntza da. Nafarroaren ondare izanik, altxor hori **begiratu, babestu eta hedatzeko, eta haren hondatzea eta galera eragozteko beharkizuna** ezartzen du Legeak. Hizkuntza-aniztasuna aldarrikatu eta babestuko du Legeak.

b) Hizkuntza-eskubide berdintasuna. Herritarren artean berezikeriak saihesteko funtsezko printzipioa da hizkuntza-eskubideen berdintasuna. Hizkuntza-eskubideak ahalbidetzeko tresna eraginkorra hizkuntzaren ofizialtasuna da, hizkuntzari lege balioa ematen baitio. Ofizialtasunaren bidez, gizarte antolatua hizkuntza-ohiturak, -jardunak eta -jokaerak arautu eta bermatzen dira, herritar guztien onerako, eta egoera guztietarako. Horrela, herritarren hizkuntza-eskubideak betebeharreko agindu bilakatzen dira Administrazioarentzat. Hizkuntza-eskubideen kalitateak adierazten du eskubide demokratikoen nolakoa.

- Hortaz, **euskarari aitortuko zaio ofizialtasuna lurralde osoan**, nafar guztien arteko berdintasuna bermatzeko estatus juridiko egokiena baita.

c) Hizkuntza-eskubideen bermea. Herritarren hizkuntza hautua errespetatuko da, beti eta ororen gainera, **euskaraz bizitzeko eskubide efektiboa** gauzatzeko moduz. Horrek esan nahi du euskaraz bizitzeko eskubidea aitortzeaz batera, eskubide horrek eragiten dituen betekizunak ere zehaztu behar direla.

- Euskaraz egindako jarduera orok balio juridiko osoa izango dute.
- Euskara erabilera normaleko hizkuntza izendatuko da Nafarroako Administrazio osoan, euskarazko jarduera lortzera begira. Ondorioz, errespetatuko da administrazioarekin dituzten harreman eta jardura guztietan euskaraz aritzeko herritarren hizkuntza hautua, eta langile publikoek beren jardura euskaraz egiteko eskubidea bermatuko da.
- Erabilera sozialean ere euskarak normaltasuna berreskuratzeko, arautu, lagundu eta sustatu egingo da euskararen erabilerearen alde, herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko eta euskarazko jardura progresiboki hazi dadin, gizarte bizitzan ere erabateko normaltasuna lortzera begira.
- Euskaraz informatzeko eskubidea gauzatu da, diren euskarri guztietan, horretarako behar diren baliabideak tresna juridiko eta plangintzazkoak zehaztuz eta ezarriz.
- Hizkuntzagatiko bazterkeria eta bereizkeria egoera fermuki baztertu eta eragotziko dira,

hizkuntza-komunitate guztien eskubideak berdinak baitira, kontuan izan gabe beren kontsiderazio juridikoa edo politikoa.

- Bermatuko da herritarrek erabili ahal izatea bi hizkuntza-ofizialeko edozein.

d) Unibertsaltasuna eta gizarte kohesioa.

Hizkuntza-eskubideak eskubide indibidualak eta neurri berean kolektiboak dira, dimentsio komunikatiboaz gain, dimentsio kulturala baitute. Hizkuntza bakoitza da kolektiboki eraikitako errealitatea, eta komunitate baten magalean bilakatzen da erabilgarri norbanakoentzat, kohesioaren, identifikazioaren, komunikazioaren eta adierazkortasun sortzailearen tresna gisa. Horregatik, **nafar guztiei euskara ezagutzeko eta bizitza euskaraz garatzeko eskubidea aitortuko zaie**, horretarako publikotasuna eskainiz, nafar herritartasunaren funtsezko osagarri gisa eta baita gizarteak bere herritarrekin duen zorraren erreparazio gisa ere:

- Derrigorrezko hezkuntzan euskararen gutxieneko ezagutza ezarriko da, eta ikasketa ibilbide guztia euskaraz egin ahal izatea bermatuko da.
- Helduen euskalduntzea doakoa izango da.
- Euskararen transmisioa eta jarraipena ziurtatzeko behar diren baliabideak tresna juridiko eta plangintzazkoak zehaztu eta ezarriko dira. Euskaraz elkar ulertzeko gaitasuna eskuratzeko lagunduko digu nafarroiei elkarri errazago ulertzen, enpatikoagoak izaten eta elkartasunezko jarrerak berreskuratzen, euskararen aurka erakundeetatik ezarri nahi izan duten tentsio giroa baretuz eta onbideratuz.
- **Bizikidetzaren aldeko sentiberatze ekimenak** bultzatuko dira, hizkuntza-aniztasuna eta pertsonen eskubide guztien defentsa eta gizarte bakea aldarrikatuz. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea dauka behar diren baliabide guztiak eskura izateko, ziurtatzeko bere hizkuntzaren eta kultur adierazpenaren sorkuntza, hedapena eta ezagutza sakonak.
- Hortaz, **euskal kultura suspertzeko, hedatzeko eta etorkizunera proiektatzeko tresna juridiko eta plangintzazkoak** osatu eta ezarriko dira.

e) Hizkuntza-normalizazioa. Euskararen lege berriaren bokazioa izan behar du, herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideak errespetatzeaz batera, euskararen normalizazioa eragin eta lortzea. Horretarako, **euskararen berreskuratzea eta erabilera sustatzeko hizkuntza-politika** ausarta zehaztuko da, minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza-egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko.

f) Hizkuntza-iraunkortasuna. Euskararen lege berriak printzipio gidatzaile izango du osasun betean helaraztea euskara hurrengo belaunaldiei, homogeneizazioa saihestu, eta Nafarroaren kultur aniztasuna eta identitatea zaintzeko.

Nafarroan badira euskara nagusi den eremu soziolinguistikoak, eta horiek funtsezkoak dira hizkuntzak esparru berriak irabazteko. Horregatik, Administrazioak **errekonozimendu eta lege-babes berezia bermatuko dute arnaguneetan**, euskarak bizi duen egungo egoerari eusteko eta bere garapen iraunkorra ahalbidetzeko

g) Subsidiaritate printzipioa, ekitatea eta erreparazioa. Euskara hizkuntza gutxitua izanik bere lurraldean, erabilera sozialean hizkuntza hegemonikoarekiko duen aldea orekatzea lortzeko, euskararen alde **jokabide positiboko neurriak** garatuko dira, Eskualde edo Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko Europako Kartaren ildotik, herritarren hizkuntza-aukeraren berdintasuna bermatuz. Alde horretatik, egoera gutxiagotuan dagoen euskarari lehentasunezko trataera ematea berdintasunerako urrats bezala ulertzen da. Horregatik, arauak, irizpideak eta jarraibideak zehaztuko dituzte erakundeek, euskaraz egiten diren eta egin daitezkeen funtzio soziolinguistikoak euskaraz egin daitezkeen. Era berean, urtetako hizkuntza-politika makurren **eragin kaltegarriak onbidean** jarriko dira, eta aitortza egingo zaie, egoera zailenetan ere, euskarari eutsi dioten gizarte mugimendu eta ekimenari.

h) Prebentzioaren ikuspegia barneratuko da erakundeen lan moldeetan, euskarazko jarduera

osasuntsu dagoen egoeretan atzerapausoak saihesteko, eta euskararen garapen osoa eta berreuskalduntzea lortzeko. Erakundearen politikak eta neurriak ezarri aurretik, jarduerak diseinatzen diren unean bertan, **hizkuntzaren kudeaketaren aurreikuspena eta eragin linguistikoaren ebaluazioa** eginez, ziurtatu ahal izango da egitasmoek ez dutela euskararen aldekoa den egoerarik kaltetuko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituztela.

i) Eraginkortasuna. Euskararen garapen soziolinguistikoa izaten ari den aurrerabidearen logika berean garatuko da Legea.

- Lege aurreragarri batek beharko duen **arautegia eraiki eta ezarriko** da.

Hizkuntza-politika eragingarria garatuko dute erakundeek, ereduzko jokabideak garatuz eta trakzio lana eginez, erraztuz erabiltzaileei eta langile euskaldunei euskararen erabilera, inolako eragozpenik eragin gabe, eta gizartea euskaraz bizitzera eragiteko erantzukizuna hartuz. Gizartearen euskalduntzearekin eta gizartean gertatzen diren aldaketa ugariekin bat etorriko den hizkuntza-politika dinamikoa gizarteko sektore anitzekin eta euskalgintzarekin adostuko da, eta araudian jasoko da, zehaztuz:

- Administrazio osoan eta gizartean eragiteko moduko zeharkakotasunezko ikuspegia eta jarduera.
- Lurraldean zehar dauden egoera soziolinguistiko ezberdinak kontuan izanik, errealitate horiei irtenbide egokiena emateko modua.
- Epeetan oinarritutako plangintza hazkorrak.
- Etengabeko hobekuntzarako eta ebaluaziorako tresnak.
- Jarraipenerako protokoloak eta egitura betearazleak.
- Politika horiek gauzatzeko baliabideak.

j) Progresibotasuna eta malgutasuna. Lurraldean zehar dauden egoera soziolinguistiko ezberdinei irtenbide egokiena emateko moduko modulazioa izango du hizkuntza-plangintza, beti ere, malgutasun horren muga izanik Legearen funtsa (herritarren hizkuntza-eskubideen bermea) zaintzea.

2. ARDATZAK

Lau dokumentu izan ditugu oinarri:

- **Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (2016)**
Europako hogeita hamar hizkuntza gutxituren normalizazioaren alde lan egiten duten ehunetik gora eragilek adostua, nazioarteko 20 adituren eta ospe handiko nazioarteko sei erakunderen laguntzarekin.
- **Hizkuntza Politika Berri eraginkorra (2010)**
Euskalgintzako hogeita hamar eragileren bilgune den Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUAK 2009ko apirilaren 25ean aho batez onartutakoa.
- **Euskararen normalizaziorako legea Nafarroan (2000)**
OINARRIAK plataformak jorratutakoa eta 48.246 nafarren babesa jasotakoa.
- **Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1996)**
Mundu mailako 61 GKE eta 41 PEN talde eta munduko 71 adituk babestua.

Horretaz gain, eta egungo marko juridikoari jarraiki, honako araudia ere aztertu eta kontuan hartu da:

- Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna (1992), indarrean 2001-08-14tik
- Urtarrilaren 7ko 1/1998 Legea, (katalanaren) hizkuntza-politikari buruzkoa
- Abenduaren 15eko 1986ko Foru Legea, euskarari buruzkoa
- Apirilaren 29ko 3/1986 Legea, Balear Uharteetako hizkuntza-normalizazioari buruzkoa
- Azaroaren 23ko 4/1983 Legea, valentzieraren erabilerari eta irakaskuntzari buruzkoa
- Uztailaren 4ko 3/1983 Legea, (galegoaren) hizkuntza-normalizazioari buruzkoa
- Azaroaren 24ko 10/1982 Legea, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzakoa

A. ATARIKOA

Hizkuntza-berdintasunaren alde eta desabantaila egoeran dagoen hizkuntzaren garapenerako araudi eragingarria sortu nahi da Euskararen Lege Berriaren bidez.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa ardatz, Euskararen Lege Berria oinarritzko hiru balio edo printzipiok ardaztu dute:

- **Elkarbizitza eta bakea:** Lege berriak tresna bat eskaini nahi du, eta gizarte ongizatean, elkarbizitzan eta bakean sakontzeko ekarpena da. Kontuan izan behar dugu, bakea pertsonen eta giza taldeen bizi baldintza duinak ezartzearen ondorioa dela. Hartara, hizkuntza-komunitateen duintasunaren errespetuak ekarriko du bakea. *Pax linguae* hitzaren edukia bermatzeko tresna prestatzea izan da gure betekizuna
- **Berdintasuna:** Nafarroan hizkuntzen egoeran desberdintasun handiak daude. Euskal hizkuntza-komunitateak garapenerako oztopoak ditu eta herritarren arteko oinarritzko printzipio den berdintasuna ez da bermatzen
- **Eskubideak:** Pertsona eta talde ororen eskubideak babesten ditugu. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalarekin bat egiten dugu; bertan aitortzen zaio pertsona orori hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea. Halaber, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren espiritua eta bertan aitortzen diren eskubideak ditugu ardatz; hain zuzen ere, bertan aitortzen diren pertsonen, taldeen eta komunitateen hizkuntza eskubideak.

B. PRINTZIPIO NAGUSIAK

B.1. HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK

- Herritarrek eskubidea dute euskara ezagutzeko eta erabiltzeko, harreman pribatuetan eta erakunde publikoen aurrean
- Botere publikoek neurriak hartuko dituzte eskubideak bermatzeko.

B.2. HIZKUNTZARENGATIKO DISKRIMINAZIOA

- Edozein hizkuntza ofizial erabiltzeak ezin du bereizkeriarik sortu edo eragin, ez eta atzerapenik ere.

- Administrazioak neurriak hartuko ditu diskriminaziorik egon ez dadin

B.3. HIZKUNTZAREN ESTATUSA

- Euskarari estatus ofiziala esleituko zaio Nafarroa osoan.

B.4. LEGE GARAPENA:

- Administrazioak lege eta araudiak onartu ditu euskararen estatus ofiziala garatu eta arautzeko.

B.5. NEURRI ZUZENTZAILEAK

- Administrazioak neurri zuzentzaile osagarri bereziak hartuko ditu euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatzeko, eta neurri horiek ez dira hizkuntza nagusiko hitzunikiko diskriminaziotzat hartuko. Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren 7.2. artikulua babespean hartuko dira neurriak.

B.6. BALIABIDEAK

- Baliabide materialak, diru-baliabideak eta giza baliabideak bermatuko dira hizkuntza-komunitatearen eskubideak babesteko.

B.7. EZAGUTZAREN UNIBERTSALIZAZIOA

- Euskararen ezagutza unibertsalizatzeko neurriak hartuko dira, hezkuntzan eta helduen euskalduntzean bereziki.

B.8. ZEHARLERROTASUNA

- Zeharkako ikuspegia aplikatuko du Administrazioak bere ekintzetan; erakunde publikoko atal, departamendu eta alor guztietan aplikatzekoak diren neurri eta irizpide orokorrak finkatu eta zehaztuko dira, euskara jendaurreko hizkuntza eta barne-laneko hizkuntza izan dadin.

B.9. EUSKARAREN ARNASGUNEAK

- Euskara nagusi den eremuetan, Administrazioak eta Instituzioek errekonozimendu eta lege-babes berezia bermatuko dute.
- Euskararen arnasmuneetan eragin linguistikoaren ebaluazioak egingo dira prebentzio-neurri gisa.
- Herri agintek euskara bakarrik erabili ahal

izango dute toki-administrazioaren esparruan, udalerria hizkuntza-arnasgunean kokatuta badago.

B.10. ERABILERA OFIZIALA

- Euskararen ofizialtasunaren ondorio juridikoak hartuko dira kontuan.

B.11. AITORTZA

- Euskalgintzako eragileek eta beren profesionalek egin duten eta egiten duten lana aitortu eta errekonozituko da, eta bereziki babestuko dute Gobernuak, mankomunitateek eta udalek.

C. INSTITUZIOAK ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

- Nafarroako instituzioetako, administrazioetako, toki administrazioetako eta Erakunde Publikoetako hizkuntza ofiziala izango da euskara.
- Lege honen eragin-esparrua Nafarroako Gobernua, Nafarroako Parlamentua, Tokiko zein Eskualdetako Administrazioak eta gainerako erakunde ofizial zein enpresa publiko guztiak izango dira.
- Arestian zerrendatutako erakunde horietan guztietan euskara erabilera normaleko hizkuntza izango da.
- Legeak, Dekretuak, Xehapenak, Ebazpenak... euskaraz argitaratuko dira aldizkari ofizialean.
- Lurralde osoan herritarrek euskaraz zuzentzeko eskubidea izango dute, baieta erantzuna hizkuntza horretan jasotzekoa ere (ahoz zein idatziz).
- Nafarroan kokatuta dauden herri-agintek esku hartzen duten egintza guztiak edota administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak euskaraz egongo dira.
- Nafarroan sortzen diren dokumentu publiko guztiak euskaraz egongo dira.
- Erkidegoko Erregistroetako izenpeak edo lerrokatzeak euskaraz egingo dira, eta lerrokapenak erakusteko nahi ziurtagiriak luzatzeko edozein hizkuntza ofizialean ziurtatuko da.
- Autonomiako Erkidegoaren eskumenari ez dagozkion erregistroetan akordioak sinatuko

dira dagokien erakundeekin lerrokapenak euskaraz egin ahal izango direla bermatzeko.

- Euskaraz egindako jardunbideek balio osoa eta ondorio juridikoak dituzte.
- Instituzio eta erakunde publikoen jarduera eta funtzio guztietan euskararen erabilera bermatuko da.
- Prozedura administratiboetan euskara erabili ahal izango da, eta horrek ezin dio gastu gehigarri edota atzerapenik eragin pertsona fisiko edo juridikoari.
- Kanpo- eta barne-komunikazioetan euskararen erabilera bermatzeko bete beharreko jarraibide lotesle batzuk finkatuko dira: errotulazioan, inprimaketan, dokumentuetan...
- Lanpostu eta funtzio publikoaren sarbiderako oinarrietan euskararen ezagutza kontuan hartuko da herritarren eskubideak bermatzeko.
- Nafarroako Gobernuak euskararen irakaskuntza bermatu behar die Gobernuko, tokiko erakundeetako eta legebiltzarreko langileei.
- Botere publikoek neurri eta bitartekoak jarri euskararen ezagutza eta bizitzako jarduera eta eremu guztietan erabilera bermatzeko.

C.1. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

Herritarren beste oinarritzko eskubide batzuk jokoan egon daitezkeenerako neurri zehatzak hartuko ditu Gobernuak:

Justizia

- Herritarrek epaitegietan eta Justizia Administrazioan orokorrean euskaraz zuzentzeko eskubidea izango dute, ahoz zein idatziz.
- Euskaraz egindako jardun, dokumentu, idatzi eta abarrekoek balio juridiko osoa izango dute.
- Euskaraz zuzentzean ezin izango zaie itzulpenik eskatu eta ezin izango die inolako atzerapenik edo bestelako alboko kalterik eragingo.
- Gobernuak hitzarmenak sinatuko ditu dagokion instituzioarekin euskararen erabilera justizia administrazioan bermatzeko.

Osasungintza eta Polizia

- Osasun-eskubidea eta pertsona atxilotuen eskubideak oinarritzko eskubideak direla kontuan hartuta, eremu horiek lehentasuna izango dute, bai eta plangintza berezituak ere, Gobernuaren politikan.

D. IRAKASKUNTZA

D.1. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA

- Hezkuntza-sistemak ikasleek derrigorrezko irakas prozesuaren bukaeran bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko gaitasuna izango dutela bermatzeko neurriak hartuko ditu.
- Hartara, Gobernuak beharrezko xehapenak hartuko ditu helburu hori erdiesteko.

D.2. LANBIDE HEZIKETA

- Lanbide Heziketako moduluen euskarazko eskaintza bermatzeko plangintzatuko da.

D.3. HEZIKETA BEREZITUA

- Hizkuntza irakasten den irakaskuntza berezituetan euskara ikasgai gisa sartuko da.

D.4. HELDUEN ETENGABEKO HEZIKETA

- Helduen Etengabeko Heziketako programetan euskararen irakaskuntza sartuko da.

D.5. UNIBERTSITATEA

- Irakasleen prestakuntzarako unibertsitate-eskoletan euskara derrigorrezkoa izango da, ikasleek bi hizkuntza ofizialetan gaitasun egokia lortzeari begira.
- Gobernuak, unibertsitateak eta goi-mailako irakaskuntza erakundeek, zeinek bere eskumenen arabera, neurriak hartuko dituzte ikasketa-eskaintzan euskararen presentzia bermatzeko.
- Gobernuak, unibertsitateak eta goi-mailako irakaskuntza-erakundeek, zeinek bere eskumenen arabera, euskarazko ikerketak sustatu eta ahalbidetuko dituzte.

D.6. HELDUENEUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

- Herritarrek hizkuntza ofizialak doan ikasteko neurriak hartuko ditu.

D.7. MUSIKA- ETA ARTE-ESKOLAK

- Jabetza publikoko musika- eta arte-eskola guztietako ikastaroak euskaraz egoteko neurriak hartuko dira.
- Jabetza publikoa ez duten, baina zuzenean edo zeharka diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten ikastetxeek ere hartu beharko dituzte neurriak.

E. EREMU SOZIOEKONOMIKOA

- Behar bezala arautuko da kontsumitzaile eskaldunon eskubideen aitortza.
- Nafarroako Gobernuaren edo tokiko erakundeen enpresek eta instituzioek esleitutako zerbitzu bat ustiatzen duten enpresa pribatuek eskaldunon eskubideak bermatu beharko dituzte, besteak beste, herritarrekiko ahozko zein idatzizko harremanetan, inprimaki zein dokumentazioan, errotulazioan...
- Zerbitzu publiko edo orokorra eskaintzen duten enpresek ere neurriak hartuko dituzte eskaldunon eskubideak bermatzeko aurreko puntuan aipatutako eremuetan. Zerbitzu publiko edo orokorra honako hauek dira: aseguru-etxeak, energia-hornitzaileak, garraio-zerbitzuak, finantza-erakundeak, telefono-hornitzaileak, gizarte-prestazioak, osasungintza, posta-zerbitzua...
- Zerbitzuen osasun eta segurtasunari buruzko mezuak, hala nola sendagaien jarraibideak, produktuen edo zerbitzuen arriskuei buruzko informazioa, etab., euskaraz egongo dira.
- Bestelako enpresetan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko neurriak hartuko ditu Nafarroako Gobernuak.
- Merkataritza-lokaletako osasun eta segurtasunari buruzko jakinarazpen eta jarraibideak euskaraz egongo dira.
- Langileen hitzarmenetan hizkuntza-klausulak egotea ahalbidetuko da lantokian euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko.

F. ONOMASTIKA

- Administrazio eta instituzioek Euskaltzaindiak zehaztutako izendegiak hartuko dituzte erreferentziatzat.
- Euskarazko toponimoek ez dute gaztelaniazko baliokidearekin joan behar.
- Legez arautuko da erregistro ofizial, errotulazio eta mapa ofizialetan euskarazko leku-izenek agertu behar dutela beti.
- Izen-abizen erdaldunduen grafia euskaratzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei, bai eta edozein beharretarako erabiltzeko ere.
- Administrazioak ezin du herritarren izen-abizenen grafia aldatu edo aldarazi, ez eta haien forma itzulia erabili edo erabilarazi ere.

G. HEDABIDE SOZIALAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

- Herritarrei hedabide sozialetik euskaraz informatuak izateko eskubidea aitortzen zaie.
- Euskara lehentasunez erabiltzen duten hedabideei laguntza ekonomikoa eta materiala bideratuko zaie.
- Gobernuak esleitzen dituen irrati- zein telebista-kateei hizkuntza-irizpideak ezarriko zaizkie.
- Beste autonomia-erkidegoetako euskarazko telebista- zein irrati-kateak jaso ahal izateko neurriak hartuko dira.
- Administrazio publikoen softwarea euskaraz lokalizatuta edo euskarara itzulita egongo da, eta herritarren esku jarriko da.
- Administrazio publikoaren laguntza zuzena edo zeharkakoa jasotzen duten antolakunde, enpresa eta negozio guztiek beren zerbitzu digitalak euskaraz eman behar dituzte.

H. KULTURA

- Euskarazko sorkuntza egiten duten artisten lana errekonozitu eta babestuko da, eta sortzailearen estatutua sortuko da haien eskubideak babesteko.
- Euskarazko literatura-sorkuntza, liburuen edizioa, hedapena zein banaketa, ikus-entzuzkoak zein bestelako kultura-adierazpideak sustatu eta bultzatuko dira.
- Instituzioek antolatutako edo haiek diruz lagundutako kultur programazioetan euskaraz sortutako kultur adierazpideak bermatzeko kuota ezarriko dira.
- Euskararen sustapenarekin, hedapenarekin... lotutako ekintzetan betebeharrak fiskalak saritu edo salbuetsiko dira.

I. BOTERE PUBLIKOAK SUSTATZAILE

- Nafarroako Gobernuak euskararen normalizazio-prozesuaren zuzendaritza tekniko eta prozesuaren jarraipena egingo du
- Prozesua ahalbidetzeko, Legea gauzatu eta garatze aldera erakunde guztien lanak eta ahaleginak aztertu eta bateratzea helburu izango duen bilgunea sortuko du.

- Normalizazio-prozesua bere gain hartzeaz gain, urtero Parlamentuari horren berri emango dio.
- Herritarrek euskararen garrantziaz kontzientzia hartzeko planak jarriko ditu abian.
- Hizkuntzaren egoeraren inkesta eta mapa soziolinguistikoak egingo ditu.
- Euskararen aldeko gizarte-eragileak aholku emaileak izanen dira.



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA